

Juan Jose Ekisoain euskalzale argia

Gizon gaztea dugu Juan Jose Ekisoain, Iruñese euskalzale benetakoa. Nafarroa'ko Jaurilaritzan "Euskara saillan" eziketa ekintzan buru dago. Nafar euskalzale batentzat lana zoragarria.

Lengo batean alkarizketa auzkitzeko aukera eman zidan; erantzunak berriz guztiz argiak jaso nituen.

Langille amorratua dugu. Ikastetxe Publikoetan erdiko atetik euskara sartzea dela egin dun lanik ederrena, aitortzen zidan. Ortarako Napar Jaurilaritzak, 1988'garren urtean artu zuen erabaki nagusia, baita lanean jarri 1991'garren urtean.

Etorkizunari buruz, euskara goi maillan ikusi nai luke, batez ere ikastetxe Nagusian ondo ezarria.

Jaurilaritzaren lanik onena, euskara agintarien lanerakundetan, goitik behera sartzea dela, aipatzen du.

Nafarroa'n zear, euskarari buruz egin den lanik onena, ikastolak sortzea deritzait. Egiz ikastolek iriki diote euskarari aurrera ateratzeko bidea.

Euskararen indarra, gurasoen naita eta zaletasunean ijusten du. Oraindik aurtan Iruña'n ikastoletako ikasleak eundik amasei azi dire. Orrekek dena erraten du. Euskarari arreta ona ematen diote gaur Nafarroa'n. Euskarari ere aunitz laguntzen omen dio Alli Lendakariaren zaletasunak. UPN alderdian aunitzek euskarari agertzen dioten maitasuna, gaurko aldaketa aundiaren ezaugarria da.

Nor dugu Juan Jose Ekisoain? Iruña'n sortu zen 1954'garren urtean. Aitona aman aldetik, Balero Larraburu, Sara'koa zeukan, era bat euskalduna. Aitona aitan aldetik berriz, Juan Ekisoain, Elomendi mendean

sortu zen; euskaraz ba zekin. Amasei urtekin gaueskolan Iruña'n asi zen euskara ikasten. Gero Diputaziora Xole Erbiti'k antolatzen zituen ikasketara joan zen. Ulzama'n ere egiten zituen ariketak. Deusto'n Izkuntza Ikastetxean iru urtez ikasketak eginda txartela edo trebetasunaren agiria lortu zuen.

Bere Biologi Jakintzan goimallako ikasketak egiñak ditu Iruña'n Opus'en ikastetxe Nagusian. Orain doktoradua lortu du; Huarte-Arakil'en arkitutako "maskordun" (molusko) berezi batez mintzo da. Lanaren buruen bat euskaraz argitaratzeko asmotan dabil.

Iruña'ko Institutoan egiten zuen lana irakasle bezala. ordizia'n lau urte egin zituen Institutoko zuzendari bezala. Iruña'n Eziketaren Ekintzan Euskara saillan, buru ta zuzendari bezala 1988'garren urtean asi zen lanean, gaur arte.

Euskara Saillan amar laguntzalle dauzka, oyetik bederatziz Nafarrak. Bi zatitan dauka banatua lana; bat irakasle berriak sortzeko irakaskintzekin, bertzea euskaraz irakasleal berritzeko (Biziklajea). Azkeneko amar urte auetan borzeun irakasle etorri zaizkie.

Euskal idazlerik maitena, Elkano'ko Joakin Lizarraga du. Euskara Iruña ingurukoa atsegiña zaio, batez ere Xabier eta Sakramentuei buruz Lizarragak egin dako liburuak. Oso goien jartzen du baita Arturo Kampion.

Juan Jose Ekisoain egitzako euskalzale ta gizon argi onek bezalakoak egingo dute Nafarro berria.

«Irakaskintzan eta sendian dago euskararen etorkizuna Nafarroa'n», berak zion.

LATXAGA



Bestak hemen eta bestak han

Abuztuko hilabetea joanik eta Iralan sarturik, nabari da udazkenaren useña. San Bartolomeak joan ziren, lekautarrak beren bestak ospatu dituztela. Orain ditugu Arraiozkoak hauek ere erreista haundikoa, yende aunitz biltzen baita herri huntan. Lehenago Arraiozko bestak Abuztuko Amabirjiñetan izaten ziren baina egun hortan herri haunitzetan bestak zirela eta yende gutxi biltzen zela, beti ere bestak aldatu zituzten Iruñeko lehenbiziko igandera. Gero heldu zaizkigu Elbetakoak Santakuzetan Irailaren 14-ean eta azkenik Anizkoak ditugu. Urriko lehenbiziko igandean. Aniztarrek arraioztarrak bezala bestak aldatu zituzten, hauek ere Amabirjiñetan zituzten eta orain Urriko hilabetera aldatuak. Herri guzietan besta ederak egiten dituzte: Herri Kirolak, Bertsolariak, Pilota partidak, Zikiro

yatea eta naiko soñu ta dantza, baktzak beren herrietan ahal duten guziaz eginin.

Gu adinean goiti goazi eta goandekoa 60 urte hoketan egin diren bestak gogoan dauzkagu. Aldakuntzak egin direla, bai dudarik gabe baina ospakizunetan berdintsu, pilota partidak, kirolak eta zenbait ikusgarri berdintsu eta bai plazako soñua batez ere Elizondon. Bertze herrietan gehiago nabari da zeren herri hoietan ez baitzen dantza loturik eta ez ere soñurik afalondoa. Gero pisikaka pixkaka gauzak aldatuz zoazin eta asaplidi huntan mota guzietako dantza sartua da zoko guzietan. Beti ere gure dantzak zaintzen dira eta mutil-dantza bizirik irauten du, gazterien artean bada zaletasuna. Bizimoduak aldakuntza haundia egin du eta ez dira berdiñak orainko bestak eta duela 60 urte-

koak. Baina zertan nabari da aldakuntzik nabarmena?, erranen dut: Etxera erretiratzeko tenorea, Lenagoko denboretan, gure haur denboran, «Ilun-ekileko» etxera eta bestetan ere bai, soñua iluntzen zanean akitzen baitzen. Elizondon afalondoa ere izaten zen soñua baina gure erditik bereala akitzen zen eta mundu guziaz etxera. Erran dezadan ere afalondoa irakazteko ez zirela etxetik ateratzen. Gaurko denboretan ez da holarik eta herri guzietan ohiturak aldatu dira. Orain dugu «Gau-Pasa» aspaldi huntan modan dagona; baina egia erran horrek ez dakarra ondorio onik, goizeko 6-etan etxera erretiratzeko ez dago ongi batez ere neskatxetan. Lenago «Ilun-ekilean» etxera eta orain «Argi-ekilean! doi-doian!»

M. Izeta

Albiste laburrak

Itoiz'ko zingira eraikitze lanak aurrera doazen bitartean, Bruseles'etik berriz argibide geyago eskatu dituzte; zingira egin bearraren adierazpenak, Naparroa'rentzat ekarriko dituan onurak eta ingurugiroari egingo dion eragiñak argituko dituzte irail ontan; Naparroa'ko Ubidea edo Canal de Navarra'taz ere, ingurugiroari buruz argibide geyago eskatu dituzte.

Naparroa'ko bizilagunen kopurua igaz, 3.999 lagunetan ugalduta; oso gutxi. Iruña'n, 367 geyago; Tudela'n, 272. Urtero gutxitzen dirjoala, laster batere ugalduko ez dan kezkarrekin daude agintariak. Urte onen asieran, Naparroa'k 532.836 bizilagun zituan.

Autobus-geltokiko lurrak saltzerakoan, Iruña'ko Udalak, enkante edo subastan agertu diran bi taldeek eskeñi duten arabera, 5.124 edo 5.661 milla milloio peza jasoko ditu, ez dirutan, baizik, autobus geltoki berri bat egiten eta Rotxapea eta San Jorje'n egingo diran etxebizitzetan.

Eun urte bete dira, Aita Eskolapioek Iruña'n lenengo ikastetxea sortu zutenetik. Gaur egun, 1.100 ikasle dituzte. Ori dala ta, urtean zear jai-aldi ta ekintza bereziak ospatuko dira. Zorionak eta eskerrak, aur eta gaztedi eziketetan

egindako lan bikañagatik!

Esparragoak naiko lanak badi-tu, Peru eta Txina'tik datoztenei aurre egiteko; barazki onek dituan zailtasunetan laguntzeko asmoz, Europa'ko Barazki eta Igalie edo Fruta erakundeak, emendik bi urterako, diru-laguntza onak eskeintzeko bideak atondu omen dira. Bestalde, giro berrei esker, Erribera'ko Bealdean, maats-biltzen asiak ditra.

Udarako jai-aldiak errietan oraindik bukatzeko diranez, azken egunetan izandako berririk jakintsuenak aiatatu egin bearko: Huarte Arakil'en urtero egin oi dan «Artzain-Eguna», gero ta arrakastasuagoa gertatzen da eta ez bairik gabe, artzai-txakurren leyaketak ortan zer ikusdirik ba-du. Igaz bezela, aurteñ ere txapelidun, Amayur'ko, Felix Irigoyen, «Kubino» izeneko bere txakurrekin; bigarren, puntu bat gutxiagorekin, baita ere Amayur'ko Patxi Etxeverria. Gazta-saria, Huizi'ko Juan Cruz Martiarena Sagastibeltza'rentzat, eta saldu zan gazta-erdiarengatik, 170.000 peza ordaindu zituan, Iruña'ko «Hartza» jatetxeoak.

Insausti pala-jokatzalea illabeteetan zai egon bearrean izan da profesional mallan jokatzeko aste-ko, baña azkenean asi da eta, uste

bezela, ezin da obekiago azaldu ere. Joan dan astean Bilbao'ko jayetari izan dan txapelketan, pelotari onenaren saria jaso du; Torre laguntzale zuala, Daniel eta Juan Pablo, berrogeira 32' un tzi zituan. Bera ikusteko zaletasun aundia zegoen eta asi besterik ez, pelota-lekua gañezka bete zuan.

Marzilla'n urtero ospatzen den altxur-jaurtiketak naiko ikusmin sortu du aurtan ere. 73 partaidetik txapelidun nagusia, Carlos Balduz Azkarate izan zan; 27,30 metroraño bota zuna, baña aidean zijoala, inguruan zegoen argi-indar-ari bat jo izan ez ba'lu, orain arte urrutiena bidalitako neurria gaintituko zuala zioten danak; errekorra, 29,10 metroan dago. Naparroa'ko erri askotatik bezela, Gipuzkoa, Santander, Kataluña eta Valladolid'tik ere agertu ziran jaurtiketak egitera. Emakumeak ere izan ziran eta txapelidun, Belen Boleas Garrido, 16,10 metroekin.

Indurain'ek atzo egingo zuan Bordele'n, ordu beteko txirrida-sariketa; idazlan au aurrez idatzia egon arren, nere ustea eta gogoa, errekorra autsiko duanekoa denez, zorionak Migel! Bertara joateko egokierarik ez degun ezker, telebistaz ikusten alegindu bearko. Naparroa'n bezela Euskalerrri osoan, irrika ikaragarria zegoen.

Berri-emalle

Berri ona

Ireki

«Ireki zaitez» (Mk. 7,31-37)

ASKO ta aso dira gizartearekin zerikusirik ez dutenak. Adiñekoak baztertu egiten ditugu, gaisoak ez ditugu gure artean euki nai, gaztetxoak ez dakite deus...

Zergatik bazterten ditugu pertsonak? Nagusiak, gaisoak, aurrak, gazteak, beltzak, atzeritarrak... ez al ditugu eskubide berak duintasunez bizitzeko?

Arazoak itzegiñez konpontzen dira. Itzegiteko, ordea, irekiak izan bear dugu. Urkoa onartzeko eta aren eskubideak ezagutzeko eta errespetatzeko irekiak izan bear dugu, dudarik ez.

Izketarako, noski, geure burua ongi ezagutzea bearrezkoa da. Ezagutzen ez banaiz... zer erran dezaket?

Izketari uko egitea, adiskide, nork bere buruari uko egitea da. Eta geure buruari uko egin ezker gure mundua sortzen dugu, bakarrik gelditzen gera, urkoaren bearrak ez dugu sentitzen. Eta egoera orrek gaisotasun ugari sor ditzazke gure izatean.

Jakina, aske gera izketaldiari baietza emateko edota ateak isteko. Izketaldiari, itzegiteari, komunikazioari baietza emateak egian eta jatorrasunean bizitzeko aukera egitea erran nai du.

Errezagoa da, zalantzarik gabe, iñori ezer ez erratea. Gure izaera, sentimentuak, kutiziak, larrialdiak, eziñak, arazoak... norbaiti kontaktzea aren kontsejuak aditzeko eta onartzeko prest gaudela adieraztea da. Eta agian, geure bizitzeko zenbait joera aldatzea eskatuko digu.

Edota, gauzak kontatzeak erabat baztertuta gelditzearen arriskua sor dezaiguke. Eta orduan, zer?

Utzi dezagun argi ta garbi gauza bat: itzegiteak, irekiak izateak entzuten jakitea eskatzen du. Entzutea itzegitea bezain inportantea da.

Jesus-ek gaisoari «Ireki zaitez» erraten dio. Belarriak eta mingaiña dira irekiak. Ortan bakarrik ez da geratzen Jesus, izate osoa, gizakia oso-osorik ta irikitzen dena. Gorputz eta anima...

Beretan itsita eta iñorekin arreman jatorrik gabe bizi zen gizona, gizartearen besteekin elkartasunean bizitzeko gauza egiten du Jesus-en itzak. Eta gizartearen elkartasunean bizitzeko gai dena, noski, Jainkoarekin arremanetan eta elkartasunean bizitzeko gai da.

Artzalluz'tar Joxemari